





MUNDUAREKIN FABULATU

Hernani ekofeministotik eta literaturatik zeharkatzen

«Sagarren herrialdea da, bertako emakumeek sagarra bakarrik jaten dute, ez dute sagar muztioa besterik edaten eta noiznahi transgresioaren sagarrari hozka egiteko prest daude, Jainkoaren gaitzespena gaindituz eta gure lehen aitaren debekua saihestuz. Adanen semeak borondatez liluratzan dituzten Evak dira, eta buru-has edo hutsik, mendian bizi dira erabateko askatasunean eta inozotasunean, Eva lur paradisu bezala».

Hernani,
2023ko ekainaren 9an,
19:00etan.
Leokako labaderotik hasita.

1. GELDIALDIA

(eta abiapuntua)

LEOKAKO LABADEROA





1. TESTUA

Staying with the trouble
Donna J. Haraway, 2016

Itzultzaileak:
Ainhoa Gutiérrez del Pozo eta Eli Pagola Apezetxea

Hainbestekoa da hitz eta arma ederren fantasiaren esklabotzatik kontatua izan den biziaren historia, hitzen gisako lehen arma ederretatik, eta alderantziz. Tresna, arma, hitza: hitz haragitua zero jainkotiarraren irudi. Aktore erreala duen istorio tragiko batean, munduen-sortzaile erreal, heroia: hau da ehiztari-Gizon-sortzailearen kontaketa, hiltzeko misioan harrapatua dagoen eta altxor izugarria ekarri behar duenarena. Hau da egite hilkor, garratz eta oldarkorraren kontaketa, lurrari lotutako pasibotasun ustel jasangaitza nola itsaskorra geroraten duena. Ipuin faliko honetan, gainerako guztia atrezzo da, lur-eremu, tramaren edo harrapatuaren leku. Ez dute garrantzirik, haien egitekoa tartean egotea da, gaingituak izatea, bide izatea, ibilgu, baina ez bidaiari, ez egile. Heroiak nekez jakin nahi du dituen arma eta hitz ederrak ezerez direla poltsarik, edukiontzirik, sarerik gabe.

Aitzitik, abenturara abiatzen den inor ez litzateke ausartuko poltsarik gabe etxetik ateratzen. Nola sartu ziren bat-batean ipuin hartan soin-uhala, potea, botila? Nola lortu zuten gauza xume hauek istorioaren jarraikortasuna bermatzea? Eta, akaso, heroiarentzat kalte, zein eratan gauza ahur, barnehustutako, Izakiaren zuloak, lehen unetik dituzte kontaera izandunagoak sortzen, nabarmenago, oso-ago, lekuz-kanpoko, jarrai; ehiztariarentzako leku duten errelatoak, baino ez bere inguruan ari zirenak edo direnak, bere burua eraikitako Gizaki, historiaren makina-gizaki-sortzaile? Ur apur bat besterik ez duen maskor leunak, eskaini eta jasotzeko hazi gutxi batzuk dituenak, elkarrekin-bilakatzea du iradokitzen, elkarreragina; bizi eta hiltzeko jardunaren narrazioa bukatze-soila xede ez duten espezie-kide dira, munduen formekin akitzea helburu ez dutenak. Maskor eta sare bat hartuta, giza-bilakaerak, humus-bilakaerak, lurtar-bilakaerak, bestelako forma hartu du: forma sigi-sagatsua, makurra, elkarrekiko-bilakatua.

[...]

«Kontaera hori azkenera heltzen ari dela lirudike tarteka. Akaso ez balego kondaira gehiagorik, olo basati artetik gutako batzuk, ondokoen arto artetik, beste kontaketa bat hastea nahiago genuke, jendeak jarrai dezan zaharra bukatzen denean...»

2. TESTUA

Le féminisme ou la mort
Françoise d'Eaubonne, 1974

Itzultzailea:
C. Carretero (gaztelaniara);
Mirene Begiristain Zubillaga (euskarara)

Arrazoiketa sinplea da. Ia mundu guztiak daki gaur egun desgertzeko mehatxu hurbilenak gainpopulazioa eta baliabideen suntsipena direla; pixka bat gutxiago ezagutzen dute bi arrisku horietan Sistema-maskulinoaren erantzukizuna, maskulinoa den aldetik (eta ez kapitalista edo sozialista); baina oso gutxi aurkitu dute bi mehatxuetako bakoitza duela berrogeita hamar mende gizonei boterea eman zieten bi aurkikuntza paraleloetako baten emaitza logikoa dela: *bai lurra eta bai emakumeak intseminatzeko duten gaitasuna eta euren parte hartzea ugalketa-ekintzan.*

Ordura arte, emakumeek bakarrik zuten nekazaritzaren monopolioa, eta gizonek uste zuten jainkoek uzten zituztela haurdun. Nekazari eta sortzaile gisa zituzten aukera dualak aurkitu zituztenetik, Lederer-ek bere aldeko «inbertsio handia» deitzen duena ezarri zuten. Behin Lurra hartuta, beraz, ugalkortasuna (gero industria), eta emakumeen umetokia (beraz, ugalkortasuna), logikoa zen bien gehiegizko ustiapenak arrisku bikoitz mehatxatzaile eta paralelo honetara eramatea: gainpopulazioa, gehiegizko jaiotzak eta gehiegizko produktuengatik ingurumena suntsitzea.

Beraz, gaur egungo mundua salba dezakeen mutazio bakarra botere maskulinoaren «inbertsio handia» da, nekazaritza gehiegizko ustiapenaren ondoren industriaren hedapen hilgarria dakarrena. Ez da «matriarkatua», noski, edo «emakumeen boterea»; emakumeen eskutik boterea suntsitzea baizik. Eta, azkenik, tunelaren amaiera: munduaren berdintasunezko kudeaketa, birsortzeko (eta ez hainbeste «babesteko»), oraindik ere lehen olatuko ingurumen-zale atseginek uste duten bezala).

Feminismoa edo heriotza.

3. TESTUA

***La muerte de la naturaleza*
Carolyn Merchant, 1980**

**Itzultzaileak:
Ainhoa Gutiérrez del Pozo, Marta Barba
Gassó eta Mirene Begiristain Zubillaga**

Hitzaurrea. Atzera begirakoa. 2020

Arroilako pareta eskarlata, okre eta kobreetan zehar luzatzen ziren itzalak. Eguzkiak, sartu ahala, tontor zizelkatuak estaltzen zituen, eta koloreen mugimenduak milioika kareharrizko xafla higatuak ukitu, horrela. [...] Paisaia hunkigarria zen; koloreak, zoragarriak; harriak, kartsu eta biziak. 1975eko uda zen Bryceko Arroilan, Utahn. Hirurok esploratzen genuen mendebalde amerikarrek lur arroilatsua. Parke nazionalako kanpinean afaldu ondoren, mutilak loak hartu zituen, akituak ziren. Ni itzarrik nengoen, arroka bizidunen ironian pentsatzen. Zientziaren arabera hilik zeuden, geldirik. Gizakien historiaren zati handi batean, ordea, arroka berberak bizirik egonak ziren, hazi eta erreproduzitu izan ziren landare edo animalien antzera. Orduan argitu zitzaidan hainbeste urtez lantzen aritu nintzen liburuaren izenburua. *Naturaren heriotza* bataiatua izan zen.

[...]

Hitzaurrea. 1990

Naturaren heriotzaren lehen edizioaz geroztik, bertan jorratutako gaiak berretsia egin dira. Krisi ekologikoak planeta guztiari egiten dio mehatxu, 70eko hamarkadako ingurumen-krisiaz haratago [...]. Gizaki eta lurraren arteko aliantza berria premiazkoa da.

Natura eta emakume kontzeptuak eraikuntza historiko eta sozialak dira. Ez da ezaugarri higiezin «esentzialik» ez sexu, genero edo naturari dagokionik.. [...]

XVI. eta XVII. mendeen artean, mundu mekanizista baten ikuspegiak ordezkatu zuen lur bizi eta femeninoa zuen kosmos organikoaren irudia; natura hil eta pasibo gisa berreraiki zen, gizakien menpean eta kontrolpean. *Naturaren heriotza* arduratzen da erabateko transformazio hori bideratu zuten aldaketa ekonomiko, kultural eta zientifikoez. Iraultza Zientifikoan naturaren kontzeptualizazioa nolakoa zen ulertzen saiatzen naiz; ez dut esentzia aldaezinen inguruan hausnartzen, aldaketa sozialaren eta naturaren eraikuntzen arteko loturetan baizik.

4. TESTUA

Toma de Tierra I
Yayo Herrero, 2023

Itzultzailea:
Mirene Begiristain Zubillaga

Eta aurrerapena deitu duguna lurretik eta gorputzetatik pertsonen airerazte fiktizioa besterik izan ez balitz? Eta aurrerapenaz egin dugun kontzeptualizazioa, lurretik eta haren mugetatik, gorputzetatik eta bere zaurgarritasunetatik arrotzuta bizi gintezkeenaren ilusioa baino izango ez balitz?

[...]

Ekofeminismoa mugimendu sozial bat da, eta, aldi berean, pentsamendu-korrante bat, batez ere mugimendu feministaren eta mugimendu ekologistaren arteko elkarrizketan oinarritzen dena. Berriz diot, elkarrizketa-kontu bat da; izan ere, garrantzitsua baita ulertzea harreman hori berdintasunezkoa dela, non bi mugimenduetako batek ezin du bestea ulertu edo ordeztu. Funtsean planteatzen duena da, edo zentzua ematen diona da: naturaren degradazioaren eta prozesu naturalen suntsipenaren kausak aztertzen ditugunean, eta arakatzan dugunean ere emakumeen mendekotasunaren eta patriarkatuaren iraunkortasunaren atzean ezkutatzen diren kausa batzuetan, logika komun dezente aurkitzen dira. Era berean, planetaren eta naturaren muga fisikoetara egokitutako mundu bat nola eraiki planteatzen dugunean, aldi berean pertsonen bizitza eta ongizatea zaintzea lehentasunezko zatik kokatuz —feminismoaren funtsezko kezketako bat—, proposamenak nahiko sinergikoak direla ere ikusten dugu. [...] Ekofeminismoak aukera ematen digu, nolabait esateko, geure burua espezie gisa hobeto ulertzeko eta gizakiak naturarekin eta gainerako gizakiekin dituen harremanei garrantzi material, politiko eta sinbolikoa emateko. Hori baita giza izaerari eutsi ahal izateko oinarria.

[...]

Kapitalismotik kanpo bageunde bezala begiratzen ikasi behar dugu, dinamika desberdinak irudikatze gai izateko. Eta kanpoan bageunde bezala diot; barruan gaudelako, jakina. Errebeldia eta desobedientzia ariketa bat da; bizi-raupen hutsagatik.

2. GELDIALDIA


KARABELEKO

OHARRA. Geldialdi honetan testu bakarra irakurriko da, 4 zatitan banatuta.

Idea da 4 pertsona ezberdinek irakurtzea, baina irakurraldia jarraian egitea.

Segidan testua, 4 zatitan banatuta dago jada.





5. TESTUA

Jolas bat baino ez dunk — 1. ZATIA
Lucia Baskaran, 2021

Itzultzailea:
Danele Sarriugarte

Zuhaitz ez zen inoiz nekatzen Farahren istorioekin, eta Farahk gogotik kontatzen zizkion. Haurrari zaila suertatzen zitzaion zenbait ideia ulertzea, baina gustuko zuen

Farahren hitz antzinakoen sonoritatea, eta oharrak idazten zituen hura mintzatu bitartean. Farah hizketan hasi bezain pronto, lasterka inguratu zitzaizkion beste haurrak, haren kontamoldea gustatzen zitzaielako, eta isil-isilik egoten ziren zaharrak hitz egin bitartean.

—Lasterketak gustatzen al zaizkizue? —galdetu zien Farahk.

—BAI! —oihukatu zuten haurrek, aho batez.

—Imajinatu guzti-guztia korrika egin behar bazenute.

—Bai dibertigarria! —deiadar egin zuen Zuhaitzek, eta beste haurrek barre egitea eragin zuen. Irri egin zuen Farahk ere.

—Itxura ona du, ezta? Zergatik ez duzue aproba egiten? Hona nire desafioa: egin itzazue biharko zeregin guztiak korrika; ez bakarrik zuei egokitutako eginbeharrak, baita premiak eta jolasak ere. Zer iruditzen?

—Txaloka hasi ziren haurrak, pozarren, eta batzuk ez ziren gai izan kuluxka egiteko ere, aztoramenduaren aztoramenduaz.

6. TESTUA

Jolas bat baino ez dunk — 2. ZATIA
Lucia Baskaran, 2021

Itzultzailea:
Danele Sarriugarte

Farahk azkar-azkar antolatu zituen taldeak: irakurtzen zekien pertsona bat behintzat sartu behar zen multzo bakoitzean, eta zazpi urtetik beherako haurrek ez zuten parte hartuko.

7. TESTUA

Jolas bat baino ez dunk — 3. ZATIA
Lucia Baskaran, 2021

Itzultzailea:
Danele Sarriugarte

Farahk abisu ematearekin batera, negutegiko bulegorantz abiatu ziren haur guztiak, arrapataka. Iskanbila galanta sortu zuten: gehiegi ziren gela hartan eroso sartzeko; beraz, Zuhaitzek hartu zuen agintea.

—Ez dago hainbeste jenderen beharrik eskariak inprimatzeko. Itxa ron kanpoan, berehala aterako naiz. —Negutegitik irten ziren haurrak, urduri. Korrika egin behar al zuten, Zuhaitz ateratzeko zain zeuden bitartean? Kirmenek uste zuen baietz, baina Uxoak esan zuen ez zegoela premiarik, bost minutu eskas izango zirela: zereginak korrika egiteko esan zien Farahk, baina itxaronaldiak ez ziren horren barruan sartzen.

Mintzatu ahala, bere buruan antolatu zituen zereginak, haiek ahalik azkarren egiteko eran, eta denak lasterka ibil zitezela eta bulegoan bezalako zala-parta sor zezatela eragozteko.

—Eskari-orriak banatuko ditu Zuhaitzek; bien bitartean, otarren bila joango dira gaztetxoak, eta Kirmenek eta biok dataren arabera sailkatuko ditugu eskariak. Ondoren, talde bakoitza nahi bezala antolatuko da saskiak betetzeko. Konforme? —Lurralde osoa barazkiz hornitzen zuen Kiribilek, eta, astelehene-tako zereginen artean, besteak beste, eskariak otarretan banatzen zituzten, ondoren bidaltzeko.

Horren truke, gainerako komunitateek —mila biztanletik beherakoak ziren gehienak— hainbat zerbitzu eskaintzen zituzten: Matzurretan, adibidez, erregai ekologikoa sortzen zuten; Toletxeko biztanleak, berriz, ehungintzaren arloan ziharduten, Errioxekoek, mahasti-zaintzan, eta abar. Komunitate bakoitzak zeregin berezitu bat izan arren, guztietan zeuden irakasleak, sendagileak, iturginak, arotzak eta antzekoak. Herrien arteko transakzioetarako truke-sistema bat erabiltzen zuten, urteen poderioz hobetua, eta haren bitartez ziurtatzen zuten inork ez zuela ezeren faltarik.

Lurrak ematen zuena biltzen zuten kiribildarrek, behar baino gehiago usiatu gabe eta naturaren erritmoak errespetatuz. Egun hartan, uraza, patata, azenarioa eta erremolatxa sartuko zituzten saskietan, hau da, urte osoan landatu zitezkeen barazkiak, bai eta uda-garaiko batzuk ere: tomatea, alberjina, piperra, luzokerra eta babarruna.

8. TESTUA

Jolas bat baino ez dunk — 4. ZATIA
Lucia Baskaran, 2021

Itzultzailea:
Danele Sarriugarte

—Zereginak ahalik azkarren egin behar baditianagu, hobe dianagu neuk esan bezala egitea. —Kirmenen jarrerak harri eta zur utzi zituen denak; haur burugogorra izan arren, ez zuen inoiz erakutsi halako zorrozkeriarik.

—Erabakiak bizkorrago hartu behar ditianagu —sartu zen Mare—. Denbora gehiegi pasatu dianagu eztabaidan.

—Ados nagonk —baieztatu zuen Kirmenek.

Zuhaitzek ez zuen oso argi ikusten zer esan nahi ote zuen «denbora gehiegi» esamoldeak. Normalean, presarik gabe egiten zituzten egin beharrekoak, guztien erritmoak aintzat hartuz, baina onartu beharra zuen Marek eta Kirmenek arrazoia zeukatela.

—Ongi, egun bat baino ez dunk —esan zuen Zuhaitzek, Uxoari begira, zeina besoak hazta eginda baitzegoen, Mareri eta Kirmeni so, zer esan jakin gabe—. Egin dezagun Kirmenek esan bezala, eta gero gerokoak.

—Eta ez al da hobe dena oraintxe bertan planifikatzea? Horrela ez dianagu denborarik galduko —esan zuen Kirmenek.


—Astuna haiz, gero, «denbora galtzearen» kontu horrekin! —erantzun zuen Uxoak—. Denbora ez da sekula galtzen! Nondik atera dunk esamolde hori?

—Farahk erakutsi zidaan. —Harro zegoen Kirmen, besteez ez zekiten zerbait bazekielako. Zuhaitzek ere bazekien zer esan nahi zuen «denbora galtzeak», baina ez zuen txintik esan, sua ez xaxatzeko.

—Tira, hobe dianagu behingoz hastea, ez dezagun denborarik gal... —ekin zion Zuhaitzek. Uxo marmarka hasi zen esaldia amaitu aurretik—. Ez dianagu berandutu nahi; asko zagonk egiteko.

3. GELDIALDIA

KARABEL AUZORA
DOAN ZUBIA





9. TESTUA

Derecho humano al agua
Nazio Batuak, 2010

Itzultzailea:
Mirene Begiristain Zubillaga

2010eko uztailaren 28an, 64/292 Ebazpenaren bidez, Nazio Batuen Batzar Nagusiak esplizituki onartu zuen ura eta saneamendua izateko giza eskubidea, eta berretsi zuen edateko ur garbia eta saneamendua funtsezkoak direla giza eskubide guztiak gauzatzeko. Ebazpenak estatuei eta nazioarteko erakundeei eskatzen die: finantza-baliabideak ematea, herrialdeei, eta bereziki garapen bidean dauden herrialdeei, teknologiaren trebakuntza eta transferentzia erraztea, **edateko uraren eta saneamenduaren hornidura osasungarria, garbia, irisgarria eta guztientzako eskuragarria** ematea.

2002ko azaroan, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak 15. ohar orokorra eman zuen ura izateko eskubideari buruz. I.1 artikulua dioenez, **«Ura izateko giza eskubidea ezinbestekoa da giza bizitza duina izateko»**. 15. oharra, halaber, honela definitzen du **ura izateko eskubidea: bakoitzak ur nahikoa, osasungarria, onargarria, fisikoki irisgarria eta etxean erabiltzeko modukoa izateko duen eskubidea**.

10. TESTUA

2023-05-22

Urumea ertzean 2023ko maiatzak 20-21 asteburuan entzundako esaldiekin osatutako puzzle posible bat

Ura ez dugu faltan egun hauetan
lehorte garaian gauden arren.
Baina urak ura eraman digu (etxetik).

Urak beti bere bidea egiten du

Baratzea prest zuenak, jai.
Lurra eraman digu urak,
berarekin, guztiz sustraitu gabe zeuden landareak.
Harriak utzi dizkigu lurraren partez.

Urak beti bere bidea egiten du.

Urak beti bere bidea egiten du,
diogu,
baina guk nahi dugun bideetatik pasatzera bortxatzen dugu.

Gasoiila erre eta erre ibili dira Chiviteren makinaria astuna,
Nafarroan AHTaren zati bat adjudikatuta duen enpresaren makinak,
asteburuetan *guardian* dauden langile antza nekaezinak.
Bidetik lurra kentzen.
Egin zaion bidera ura itzularazi nahian.

Gu, eskertuak.
«Gasoiila bukatzean, nola egingo dugu holakoetan?»
galdera formulatu dut.
Eta, lagunak, gordin, erantzun: «ez dugu errepide beharrik
izango, gasolinik gabe».

Inozoak beti gu, fabulazio ingenuo-apokaliptikoetara jolastera
ausartzen gara oraindik,
etorkizunean kokatzen baitugu kaosa. Oraindik.
Baina, egungoa, ez al da kaos horren seinale txiki bat baino
zerbait gehiago jada?
Ondoeги bizi gara, baina, oraindik,
eta ondoegi bizi garen bitartean,... gasolina eskatzen jarraituko dugu.
Bideak izateko,
eta urari bideak irekitzeko.
Barkatu, ixteko.

11. TESTUA

Amphibious Worlds: Environments, Infrastructures, Ontologies
Casper Bruun Jensen, 2017

Itzultzailea:
Ainhoa Gutiérrez del Pozo

Egun, urari lotutako hondamendien areagotze bat gertatzen ari da munduan. Horren erakusle dira uholdeak, hondoratzeak eragindako higadura, lehorteak eta kutsadura. Hauetako askok beste arazo batzuk islatzen dituzte, hala nola: uraren mundu mailako zirkulazioa, itsas mailaren igoera, meteorologia-ereduen bilakaera, eta honenbestez, klima aldaketa. Izatez, uraren bitartez jasotzen da askotan aldaketa klimatikoaren mezua. [...] Kosta ingeniartzak eta urari lotutako proiektuak «teknika lurarren bidez» kudeatu ohi izan dira. Uraren ezabatzean eta kontrolean oinarritu izan direnez, irtenbide horiek leku gutxi uzten diote ibai edo uharreetako edo deltetako praktika edo bizimoduari [...].

Lurkaritzaren gorakadak zenbait mende bete dituenean, anfibiotasuna berpizten hasi da. Munduko toki askotan, ura lurrera itzultzeko imintziotan ari da, kostako zonaldeak modu erdi-iraunkorreetan murgilduta edo errepikatzen diren uholdeak ekarrita. Honek ageriko uzten du lurretik egiten diren erantzunen ezintasuna. Egoera horri erantzuteko asmoz, hirigile, ingeniari eta arkitektoek azpiegitura eta eredu berriak sortzen dituzte, berriz ere anfibioak diren inguruneetara molda daitezkeenak, edo lehen aldiz anfibioak diren inguruneetara molda daitezkeenak. Bitartean, burokratek, zientzialariek, teknologia-berritzaileek eta mundu osoko ur-inguruneetako biztanleek gero eta egoera anfibioagoetara egokitzeke moduak aurkitzen dituzte. [...] Horrela erakusten dute herririka flotagarrietan edo piloteen gaineko etxeetan bizi direnek, ura garraio bide nagusi gisa erabiltzen dutenek edo landaketa uretan bertan egiten dutenek. [...]

Naturari ordena sozial bat ezartzea baino gehiago, anbizioa da ibaiek «lekua» izango duten ordena desberdinak eraikitzea.

12. TESTUA

Cuerpos en el entorno: Reflexiones para una etnografía de las percepciones ambientales

Esteban Ruiz-Ballesteros eta José María Valcuende del Río, 2019

**Itzultzailea:
Izar Alguero**

Bizitzeko aukeratu genuen tokia San Martin kokalekua izan zen, Amazoniako Puerto Maldonado hirian, Madre de Dios (Peru) eskualdeko hiriburuan. Bertan etxe bat mantentzen dugu 2010az geroztik. Auzoa amildegi baten ondoan dago, eta bertatik ikusten da hiria besarkatzen duten ibaietako bat, Tambopata.

Auzo txiki honetara iritsi ginenean, ibaiaren bista apartak txunditu gintuen eta faktore hori funtsezkoa izan zen gure etxea eraikitzeke eremua aukeratzeko orduan. Hala ere, bazen zerbait harritu gintuena: inguruko etxeak ibaiari bizkarra emanda zeuden; kalera begira, bizitza soziala egiten zen lekura eta etxeke espazioa eta bizilagunekin partekatzen zen espazioa konektatzen zuen lekura.


Beste etxeak ez bezala, «espainolen» etxea, gela guzti-guztietatik ibaia begiratu ahal izateko helbururarekin eraiki zen. Guretzat erakargarri zena —ibaiko bistak— eremu honetako biztanle gehienentzat bigarren mailakoa zen, edo are gehiago, negatiboa; baina zergatik? [...] Etnografook —agian turisten antzera— errealitatea behatzen dugu, hasiera batean «kanpotik». Puerto Maldonadon, gure ikusmen-pertzepzioa ibaira bideratzen zen sistematikoki, baita gure arreta ere, arrazoi estetikoengatik, batez ere: gure begiradaren izaera, funtsean, kontenplaziozkoa zen. Gure gorputzaren orientazioa —zeinarentzat ibaiak polo magnetiko moduko bat egiten zuen— etxearen kokapenera eta orientaziora estrapolatu zen.

Jakina, gure bizilagunek ere ibaia ikus zezaketen, baina, batez ere, ikuspegi inguratzaile batetik (Ingold, 2000). Tambopata ez da arrotza haientzat, ez exotikoa, ezta urrutikoa ere, noski: haien mundua da. Guretzat erreferente bisuala da; gure bizilagunentzat, batez ere, eguneroko zereginekin lotutako bitartekoa (joan-etorriak, merkataritza...). Beraientzat, ibaia ez da errealitate bisuala bakarrik; harreman horretan beste zentzumenek ere parte hartzen dute: bertan murgiltzen dira, bertan bizi dira, bizitzen dute... Ibaiarekin harremantzeko duten moduak distantzia zuhurra islatzen du, etxebizitzaren orientazioan agerian geratzen dena, baina baita bukolikoa edo exotikoa ez den hurbiltasuna ere, gorputzeko sentsazio desberdinetan ageri dena: beroa, hotza, hezetasuna, aldaketa garaiak, eze-rosotasunak, berariazko soinuak, alerta-jarrerak edo lasaitzeak...

Ibaia, umetatik haien gorputzak moldatzen dituen elementu bihurtzen da.

4. GELDIALDIA

GOIZ-EGUZKI





13. TESTUA

Braiding Sweetgrass
Robin Wall Kimmerer, 2021

Itzultzailea:
Mirene Begiristain Zubillaga

Ohorezko uzta

Ezagutu zaintzen zaituztenen ohiturak eta beharrak,
zuk eurak zaindu ahal izateko.
Aurkeztu zeure burua. Bizitzaren bila datorrena bezala
ezagutu zaitzatela.
Eskatu baimena ezer hartu aurretik. Onartu erantzuna.
Ez eraman inoiz lehena. Ez eraman inoiz azkena.
Hartu behar duzuna bakarrik.
Har ezazu eskaintzen zaizuna soilik
Inoiz ez hartu erdia baino gehiago. Utzi zerbait besteentzat.
Uztan ahalik eta kalte txikiena eragin.
Erabili modu arduratsuan. Inoiz ez alferrik galdu hartu duzuna.
Partekatu.
Eskerrak eman eman zaizunagatik.
Egin opari bat hartu duzunarekin bat etortzeko.

Eutsi eusten zaituzten horiei, eta lurra beti iraungo du.

14. TESTUA

Finding the Mother Tree
Suzanne Simard, 2021

Itzultzailea:
Montserrat Asensio Fernandez (gaztelaniara);
Mirene Begiristain Zubillaga (euskarara)

Mamuak basoan

Basoa goibela zen, eta isiltasun ikaragarriak inguratzen zuen. Gainera, ni nengoen lekutik, mamuz betea zegoela ematen zuen. Haietako bat nigana zihoan zuzenean, flotatzen. Ahoa zabaldu nuen oihu egiteko, baina ezin izan nuen soinurik atera. Bihotzak eztarria tratatzen zidan, eta ni zentzuna berreskuratzen ahalegintzen nintzen. Orduan, bat-batean, algaraka hasi nintzen.

Mamua laino lodia besterik ez zen, zuhaitzen artean aurrera egin eta hatz zorrotzez besarkatzen zituena. Ez zegoen agerpen etereo-rik, nire industriaren egur sendoa besterik ez. Zuhaitzak «zuhaitzak bakarrik» ziren. Hala ere, beti sentitu izan dut Kanadako basoak sorginduta daudela eta espirituen bizilekua direla; batez ere nire arbasoenak, lurra defendatu edo konkistatu zutenak, zuhaitzak moztu, erre eta landatzera etorri zirenak.

Basoak dena gogoratuko balu bezala da. Gure irainak ahaztea nahiko genukeenean ere.

[...]

Adar artean jaio nintzen. Adarartetik nator.

Ez dakit zuhaitzek nire odola daramaten edo odolean zuhaitzak daramatzana ni naizen, baina orduan banekien jakin behar nuela zergatik ari ziren plantinak gorpu bihurtzen.

15. TESTUA

Andrezaharraren manifestua

Mari Luz Esteban, 2019

aro baten hasiera

orduan hasi, ahulduta ere hortxe diraute
bizirik nagoela gogoraraziz

itzartu egin naiz, nire baitako turbina
piztu baino segundo pare bat lehenago

ezer ez igarriagatik ziur naiz
badator, hazten ari da

entzun ezin daitekeen
soinua ere aditzeko gai naiz

bularraren erdigunetik gora
zabalduz doa

segundo batzuk
minutu batera iritsi gabe

oheko arropa diagonalean tolestu
urteetan perfektionaturiko koreografia

ez da mingarria
atsegina ere ez

zortzi bederatzi urte geroago
erabat ohituta egongo naiz

leundu egingo dira
trazu fineko pintzelkaden

antzerak marraztuko dute nire loaldia
badatoz eta badoaz

noiz edo noiz
zelulak dantzan jarri ohi dira neure baitan

bizitzan gorroto ohi dudak deskontrola, tarteka sikiera,
mustatzeko dohaintza

16. TESTUA

Mercados reproductivos. Crisis, deseo y desigualdad
Sara Lafuente Funes, 2021

Itzultzailea:
Garazi Zabaleta eta Marta Barba

Bizitza sostengatzeko desio kolektiborako azpiegiturak

Encinas herrian, 2078.

Hiria hemendik beti gelditu zaigu hain urrun, non barrualdeen eta kanpoaldean istorioek, erresistentzienek eta erasoenek, iruditegi harrapaezina osatzen zuten, benetazkoa izanagatik ere urrutikoa, gure mugak eta errealitateak definitzera inoiz iritsi ez zena, eta gaur, azkenean, atzean geratu dena.

[...]

Raquek haritz aldera begiratzen du. Laurak bertan zintzilikatu zuen lehen kolunpioa, Mahtab haurtxoari ongietorria emateko. Gero gehiago iritsi ziren, noski, eta orain kumaldi berri bat baserriko putzuan bainatzen ari da. Euren barreak sarrerako kartelen berniza errepasatzen ari den atariraino ailegatzen dira.

Barreak entzunda, izena eman zion amonaren istorioak etorzen zaizkio gogora. Joan den mendearen amaieran jaio zen, latza da! Mila bederatziehun eta laurogeita hamarrean, edo. Hari buruz dakien guztiak fantasia itxura du. Aita eta ama bakarra izan zituen, eta ahizpa bakarrarekin batera hemen, herri hauetan, birpopulazioaren hirugarren olatuaren parte izan ziren. [...]

Orduan hasi ziren, ia joko bat balitz bezala, ordura arte erosotzat hartu izan zuten guztia erantzten; erosotzat zutena, baina zama eta bazterketa ere bazena. Hasieran ia denbora osoan

ordenagailuekin lan egiten zuten, beste leku, denbora eta erritmo batzuetara konektatuta; baina, Candela laster hasi zen zura lantzeko tokiko moduak berreskuratzen, eta berarekin zekarrena eta ikusten zuena lotzeko moduak aurkitzen joan zen.

[...]

Putzuan dauden haurrak gauzak jasotzen ari dira, eta jantokira doaz. Han, herriko pertsona zaharrenekin batera bazkalduko dute. Raquek nostalgia puntu batez begiratzen die: txikitan amonekin egunero partekatzen zituzten istorioen errituala faltan sumatzen du. Gaur, hamalau urteko gelari dagokio janariaz arduratzea eta badirudi Isi eta Maria, gaurko arduradunak, eraikinetik irteten ari direla; beraz, dena prest dagoela dirudi. Hori pentsatzean, gosea sartu zaio Raqueri ere, eta berlizatua gaurkoz utzi eta kantinara joango da Alex eta Carlosekin zerbait pikatzera.


Prest dauden zurak bere lekuan jarri ditu, eta pentsatu du bertan dauden zenbat izen errepikatzen diren egun lur hauei bizia ematen dietenen artean: Elena, Marta, María, Adri, Gina... Faltan dituen istorioez galdetu beharra dio bere amaketako bati (*a una de sus maternas*), eta desagertu baino lehen horiek idatzi. Genealogia egiteko lan garrantzitsuaren arduraduna izan dadin proposatu dute, eta horregatik zaintzen ditu oroimenaren kartelak: ez du xehetasun bat bera ere galdu nahi. Txikitatik istorioen arteko puntuak elkartzea bere grina da; ekonomika parean aulki batean eserita amona Raqueren istorioak entzutera ohitu zen: kizkur urdinak begi gainean, samurki sukaldera egurra botatzen zuen bitartean, eta Adrianak, irribarretsu, pasarte bakoitzari punta ateratzen zion.

Guztiaren berri eman nahi du, oroimena erraztu. Azken finean, zeuden guztiei eta orduan etorri zirenei esker, zeruertz zabal mantendu zen hemen: lehendik jakina zena ez zen galdu eta babesalekua sortzea lortu zuten. Babeslekua, hori zen ateratzen ez zitzaion hitza. Beharbada, izen hori jarriko dio inoiz, bere istorioa kontatzeko, idatziko duen liburuari.

5. GELDIALDIA

(eta amaiera)

GUDARI PLAZA





17. TESTUA

Mercados reproductivos. Crisis, deseo y desigualdad
Sara Lafuente Funes, 2021

Itzultzailea:
Garazi Eizagirre eta Marta Barba

Birpentsatzen dugu, komunitateak erresistentzian X. Jardunaldiak

Madriren, 2048an

In vitro ernaldutako lehen haurren jaiotzaren hirurogeita hamargarren urteurrenean, erresistentzia-komunitateak elkartu gara, gizarteek beren ekoizpen- eta ugalketa-gorputzetan txertatu dituzten aldaketen balantzea egiteko. Geure buruari galdetzen diogu: Zer-nolako gorputzak eraiki ditugu erresistentzietatik? Zer-nolako desirak? Zer-nolako bizitzak? Zer-nolako ahaidetasunak? Tribuak osatzen ditugu, loturak berrasmatzen ditugu. Erresistentziak ugaritu egin dira, baina ez dute gainditzen salbuespen izaera. Iritsi ez zen *crac* baten zain geunden. Edo ez zen iritsi behintzat pentsatu bezala. Integrazioak eta bizi-baldintzek okerrera egitea onartu izanak lausotu egin zuen kolpearen, hausturaren eta aldaketaren pertzepzioa.

Mendearen hasieratik bioekonomien garapenak eka-rritako norbanakoaren hautatzeko askatasunaren faltsukerian erori gabe, gai izan gara tresna bioteknologikoak eta biomedikoak sortzeko eta txertatzeko, eztabaida irekiaren bidez eta kapitalizazio biologikoko talde farmazeutiko handiei egindako hackeoaren bidez. [...] Dagoeneko normalizatuta dago beren gorputzak beste familia batzuk sortzeko lehenetsiz klase pobretuen ugalketa-eskubidea murriztea.

Horri aurre egiteko eredu hauek proposatzen ditugu: ja-sangarriak, norabide anitzekoak, partekatutak, eta ez soilik haurtzaroan eta gizakiongan zentratuak.

[...]

[Gure] komunitateak hazi egiten dira gorputzen ekoiz-pen-sistamarako dagoeneko balio ez dutenen etorrerare-kin: gestante ahituak, entsegu klinikoetan gorputzak eraldatu, eta horren ondorioz eguneroko martxa jarraitu ezin duten pertsonak. Eta horiengana gehiago batzen dira: barreneko erritmo frenetikotik balazta zapaltzeko, pentsa-tzeko, mugak eta interdependentziak onartzeko beharra sentitzen dutenak eta topatzen gaituztenak. Baina, non gaude? Nola iristen dira gurera? Haurrak hazteko desira-ren pribatizazioaren aurrean, komunitateak proposatu ge-nituen; gametoen, gorputzen eta prozesuen merkatu neoliberalaren aurrean, elkarrekin nahasteko logikatik jar-duten dugu, aise sortzen diren harremanen logikatik, eta bizitza ona zentroan jarririk, ekoizpen/ugalketa dikotomia leherrarazteko logikatik. Biomedikuntza birpentsatzen eta berreraikitzen dugu parametro hacktibistetatik, desio ani-tzetatik eta guztiok sartuko garen espazioak sortu asmoz mugak ezartzeko beharretik abiatuta. Bikote + seme-ala-bak osatutako familia-eredu pribatizatua eta horrek dakar-tzan kapitalen jarraipena (ekonomikoa, soziala, kulturala) leherrarazten ahalegintzen ari gara, horretan jarraitzen dugu.

Zer gorputz, zer bizitza, zer komunitate nahi ditugu?
Zeintzuk ditugu? Zeintzuk amesten ditugu?

Zer familia, zer ugalketa, zer kidesun?

18. TESTUA

Oihan hitzean mundua
Ursula K. Le Guin, 1972

Itzultzailea:
Amaia Apalauza

Gau hartan ez zen kanturik izan. Garrasiak eta isiltasuna besterik ez. Ontzi hegalaria erre bitartean, Selver pozez zorutzen egon zen, begiak malkoz beterik, baina hitzik gabe geratu zen. Isil-isilik aldendu zen, su-jaurtigailua besoetan astun zitzaiola, bere taldea hirira itzularazteko asmoz.

Mendebaldeko eta iparraldeko taldeetako bakoitza Selverren gisako esklabu ohi batek gidatzen zuen, zeren eta, Centralvillen yizakien zerbitzari izanak zirenez, ongi ezagutzen baitzituzten hiriko eraikin eta bideak.

Gau hartan erasora jo zuten gehienek inoiz ikusi gabea zuten yizakien hiria; are, askok inoiz ikusi gabea zuten yizaki bat. Selverri segika abiatuak ziren, amets txarrak bul-tzaturik, eta Selverrek bakarrik irakuts ziezaiekeen hura mendean hartzen.

Ehunka eta ehunka ziren, gizonak eta emakumeak; zain geratu ziren hiriaren kanpoaldean, iluntasun euritsuaren erdian, isiltasun betean, eta, bien bitartean, esklabo ohiek, binaka edo hirunaka, lehentasuntzat hartuak zituzten zer haiek egin zituzten: ur-hoditeria puskatu, Argiaren Etxetik argia garraiatzeko erabiltzen ziren kableak moztu, Armategian sartu eta armak lapurtu. Lehenbiziko heriotzak, guardianak, isilpean gauzatu zituzten ehiza-armen, soken, labanen eta gezien bidez, dida, ilunpean. Dinamita, zeina egurketarien kanpamentutik lapurtu baitzuten, hamabost kilometro hegoaldera, gauez, Armategian prestatu zuten, Kuartel Nagusiaren eraikinaren sotoan, beste toki batzuetan suak pizten zituzten bitartean; orduan, alarma piztu, suahantzen hantxe aienatu ziren gaua eta isil-

tasuna. Tiroen trumoi-hotsa eta zuhaitz erorien gisako burrunba yizakiengandik zetozen gehien-gehienean, beren burua defendatu nahian; izan ere, Armattegiko arma guztiak esklabo ohien esku zeuden, eta gainerakoek lantzak, labanak eta arkuak baliatu zituzten. Dena den, zarata guztien gaineratik, dinamitarena gailendu zen, Reswanek eta egurketarien kanpamentuko esklaboen itxituran lanean aritu ziren beste kide batzuek ekarri eta ezandarazirik: Kuartel Nagusiaren eraikineko hormak erraustu, eta hangarrak eta ontziak suntsitu zituzten.

Gau hartan, mila eta zazpirehun yizaki inguru izanen ziren hirian...

19. TESTUA

Toma de Tierra II
Yayo Herrero, 2023

Itzultzailea:
Mirene Begiristain Zubillaga

Kapitalismotik kanpo bageunde bezala begiratzten ikasi behar dugu, dinamika desberdinak irudikatzeko gai izateko. Eta kanpoan bageunde bezala diot; barruan gaude-lako, jakina. Errebeldia eta desobedientzia ariketa bat da; biziraupen hutsagatik. Antigonak desobeditu egiten du, baina bere nahia ez da desobeditzea. Antigonak ez du legea hautsi nahi, aldatu egin nahi du. [...] Antigona Carola Rackete da, Italiako portu batean porturatzen, Salvinik debekatu arren. [...] Antigona da desobedientzia-elementu bakoitza, obligazioz, agindu politikoz eta moralez [...]. Kolektiboki egin behar da. Antigonak izan nahi dugu.

Baliteke momentu honetan distopia gehiegi izatea. Distopiak funtsezko zeregina du niretzat. Aztertzen edo begiratzten laguntzen digu, beldurra izaten laguntzen digu. Beldurra ez atzera botatzen gaituen eta ezkutarazten gaituen emozio negatibo bat gisa, baizik eta beldurra ziurgabetasun gisa, alerta gisa; kontzientzia izatea zuhurtzia eta kezka aplikatu behar den zerbait badelako, kontuz ibili diona [...] arazoa da distopia gehiegi izateak kontserbadore bihur dezakeela [...]. Horregatik, utopiak ere behar ditugu. Ez ameskeriak, ez itxaropen faltsuak, baizik eta izaki bizidun guztiak sartzten garen proiektuak, irudiak, ametsak.

[...]

Gu ez gauden mundu bat imajinatu behar dugu, bizitzaren bilbeak giza espezierik gabe ere funtzionatzen duela jabetzeko, espezie bat gehiago besterik ez baikara. Mundua elkarrekin irudikatu behar dugu, boterea eta kontra-


boterea imajinatu. Imajinatu behar dugu beste batzuk gara-
rela, enpatia-sentsazio hori eta beste pertsona batzuen lar-
rruan jartzeko gaitasuna garatzeko. GU bat imajinatu behar
dugu, ez inperiala eta ez koloniala den pertenenentzia-zentzu
bat. Lur planetako kide izatearen zentzua, lurreko nortasu-
naren zentzua.

Alien atzerri hitzetik dator, estralurtarra (alienigena) alie-
netik. Mende gehiegitan, Lurrean estralurtarrak bagina be-
zala jokatu eta funtzionatu dugu, eta, beraz, funtsezkoa da
identitate- eta pertenenentzia-zentzu hori lantzea. Uraz,
mugez, tokiaz, etxeaz, helduez eta umeez, segurtasunaz ar-
duratzeko modu berriak behar ditugu. Segurtasun kolekti-
tibo bat elkarrekin bizitzak eraikitzean datzana, persona
asko eta asko, bizitzako beste jiroi batzuk eta beste espe-
zie batzuk bidean utzi gabe.

[...]

Horregatik, droneak lurrera jaistean, pertsonen egin
behar dugun nahitaezko lurreratze horretan, nire ikuspun-
tutik giltzarri nagusia zera da: inguruan dugun guztiarekin
Komunitatea eraikitze gaitasuna; bizidunarekin, pertso-
nen artean, gainerako izaki bizidunekin, Lurrarekin. Eta ho-
rretarako, Donna Harawayri jarraituz, ahaidetasun arrotzak
ezarri behar ditugu, orain arte jakin ez ditugun eta sortzeko
gai izan ez garen ahaidetasun arrotzak. Eta horretarako,
une honetan, planeta honetan jarraitu nahi badugu, eta
ondo jarraitu nahi badugu, bilatzen, prestatzen eta sortzen
saiatu beharko dugu.

Testu hauek
Hernanin irakurri
eta entzun ziren
2023ko ekainaren 9an,
"Ingurumen Jardunaldiak 2023"
ekimenaren baitan.





Katie Scott, *Lurraren ilustrazioa*